


Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2020ko azaroan aurreko hilaren aldean

2019ko azaroarekin alderatuta, industriako prezioek % 2,6 egin dute behera

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioak % 1,1 igo dira 2020ko azaroan aurreko hilaren aldean. Azaroko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza biltzen duena) -% 2,6koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2020ko azaroan honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,0 gora), *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak fabrikatzea* (% 2,0 gora) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 1,5eko igoera). Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 0,7 behera), *Erauzketa-industriak* (% 0,3 behera) eta *Kautxua, plastikoa eta beste mineral ez-metaliko batzuk* (-% 0,2).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketa guztiak positiboak izan dira: *Energiaren* prezioak % 3,1 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 0,8 eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,2. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, oro har, % 0,4 igo dira aurreko hilaren aldean,

ezen *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* azpisektorean % 0,5eko igoera izan da, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektoreak aldaketarik gabe jarraitu du (% 0,0).

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Azaroa

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020aza / 2020urr	2020aza / 2019aza
INDIZE OROKORRA	101,1	1,1	-2,6
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	104,9	-0,3	0,0
Manufaktura-industria	102,0	0,7	-2,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,5	0,5	3,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,8	1,0	0,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	102,8	-0,7	-2,8
Kokeak eta petrolioaren fintzen	85,5	1,4	-24,2
Industria kimikoa	106,7	0,2	-1,6
Botiken fabrikazioa	109,2	0,0	0,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	98,6	-0,2	-0,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	102,6	1,5	0,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	106,4	2,0	3,8
Material eta ekipoen fabrikazioa	104,7	0,0	1,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,9	0,6	-3,2
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,7	-0,1	3,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,0	0,1	0,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	95,3	4,0	-1,4
Ura	109,4	0,0	1,9
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	106,9	0,4	3,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,1	0,0	0,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	107,4	0,5	3,3
Ekipo-ondasunak	108,2	0,2	0,8
Bitarteko ondasunak	102,1	0,8	-0,4
Energia	90,3	3,1	-14,2

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2020ko azaroa 2019koaren aldean), prezio-hazkunderik handienak ondoko adarretan gertatu dira: *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak fabrikatzea* (% 3,8ko igoera), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,1eko igoera) eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 3,0ko igoera). Prezioen jaitsierarik handienak, berriz, honako sektore hauei dagozkie: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 24,2ko jaitsiera), *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 3,2 behera egin duena) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 2,8 behera).

Helburu ekonomikoaren arabera ondaskun-talde handien prezioek urte arteko aldiari izan duten aldakuntza positiboa izan da *Kontsumo-ondasunentzat* oro har, % 3,0ko igoera izan baitute; izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 3,3 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun*

iraunkorrenak % 0,9. Era berean, urte arteko terminoetan, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,8 igo dira. Aitzitik, prezioetan jaitsierak izan dituzte *Energiaren* sektoreak (% 14,2ko murrizketarekin) eta *Bitarteko ondasunenak* (% 0,4koarekin).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62